

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 86/2024 Mozioa, urriaren 16koa, Arabako Foru Aldundiak Elikagaien Bankuko lokalen jardueragatiko erabilera lagapena egin dezan

Arabako Batzar Nagusiek, 2024ko urriaren 16an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

86/2024 Mozioa, urriaren 16koa, Arabako Foru Aldundiak Elikagaien Bankuko lokalen jardueragatiko erabilera lagapena egin dezan.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egin beharreko izapideak egin ditzala Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, gaur egun Elikagaien Bankua Elkarateak erabiltzen dituen lokalen jardueragatiko erabilera lagapena egin dadin elkarte horren alde. Lagapena erakunde horrek bere jarduerari eusten dion bitartean bakarrik egingo da.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote konpromiso irmoa har dezala eta beharrezko neurriak har ditzala, bere eskumenen barruan, gaur egun Arabako Elikagaien Bankua Elkarateak betetzen dituen elikadura-beharrak murrizten eta konpontzen joan daitezzen, erakunde publikoaren jarduera, baliabide eta zerbitzuen bidez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 16a

*Lehendakaria*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*